-rik du kan—ta—tzen. Du—e—la—ri—kan zer yan, zer e—  
-dan, kan—pu—a du de—si—ra—tzen: ze—ren, ze—  
-ren, li—ber—ti—zi—yua zoin e—der den.

Xoriñoak kaiolan  
 Tristerik du kantatzen.  
 Duelarik zer yan, zer edan,  
 Kanpua du desiratzen:  
 Zeren, zeren,  
 Libertiziyua zoin eder den.

Infor. : Salvador Ibararay

Loc. rec. : Hazparne

Fecha : 25 de noviembre de 1934

Ref. : G.H., 1934, 6. «Es una pequeña variante de la tan conocida canción. Me la cantó Salvador Ibararay, natural de Hazparne. En ella, la palabra tradicional "libertatia" va sustituida por "libertiziyua"». P. Donostia

## 997<sub>5</sub>- Xoriñoak kaiolan

Azkaine-Ascain  
 ( Lapurdi - L )

Variante

Xo—ri—ño—ak ka—io—lan tris—te—  
 -rik du kan—ta—tzen; du—e—la—ri—kan zer yan, zer e—  
 -dan, kan—pu—a du de—si—ra—tzen: ze—ren, ze—  
 -ren, li—ber—ta—di—a zoin den e—der!

Xoriñuak kaiolan  
 Tristerik du kantatzen;  
 Duelarikan zer jan, zer edan,  
 Kanpua du desiratzen:  
 Zeren, zeren,  
 Libertadia zoin den eder!

Infor. : Leon Elissalde, zerbitzari.  
 Loc. rec. : Bayona  
 Fecha : 10 de junio de 1941

### 997<sub>6</sub>- Xoriñuak kaiolan

Sara-Sare  
 ( Lapurdi - L )

Variante

The musical score is written on four staves in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The melody is simple and rhythmic, with lyrics written below the notes. The lyrics are: "Xo-ri-ñu-ak ka-io-lan tris-te-rik du kan-ta-tzen. Du-e-la-ri-kan zer jan, zer e-dan, kan-pu-a du de-si-ra-tzen: Ze-ren, ze-ren, li-ber-ta-ti-a zoin e-der den!"

Xo-ri-ñu-ak ka-io-lan tris-te-rik du kan-ta-  
 -tzen. Du-e-la-ri-kan zer jan, zer e-dan,  
 kan-pu-a du de-si-ra-tzen: Ze-ren, ze-  
 -ren, li-ber-ta-ti-a zoin e-der den!

Xoriñuak kaiolan  
 Tristerik du kantatzen.  
 Duelarikan zer jan, zer edan,  
 Kanpua du desiratzen:  
 Zeren, zeren,  
 Libertatia zoin eder den!

Infor. : Jean Dithurbide  
 Loc. rec. : Sara  
 Fecha : 16 de julio de 1937

997<sub>7</sub>- Xoriñuak kaiolan

Uztaritze-Ustaritz  
(Lapurdi - L)

Variante

Andantino

Xo—ri—ñu—ak ka—io—lan tris—te—  
-rik du kan—ta—tzen. Du—a—la—rik zer yan, zer e—  
-dan, kan—po—a du de—si—ra—tzen: ze—  
-ren, ze—ren, li—ber—ta—ti—a zein e—der den!

Xoriñuak kaiolan  
Tristerik du kantatzen.  
Dualarik zer yan, zer edan,  
Kanpoa du desiratzen:  
Zeren, zeren, libertatia  
Zein eder den!

Infor. : Etxenike  
Loc. rec. : Ustaritz  
Fecha : 13 de setiembre de 1949

997<sub>8</sub>- Xorro morro xorrotan

Luzaide-Valcarlos  
( Garazialdea - BN )

Variante



Xo—rro mo—rro xo—rro—tan, gu—re o—  
-lla—rra o—llo—tan; ez o—llo—tan, ba o—  
-llo—tan, gu—re o—lla—rra o—llo—tan. Ma—nex  
ho—rren bi—ho—tze—ti—kan mi—ri—ak haz—ta—pa—rre—  
-tan. Ma—ria du—a e—rra—nez: ai, ai, ai,  
ai, e—nia zu—kan.

Xorro morro xorrotan,  
Gure ollarra ollotan;  
Ez ollotan, ba ollotan.  
Gure ollarra ollotan  
Manex horren bihotzetikan  
Miriak haztaparretan.  
Maria dua erranez:  
Ai, ai, ai, ai,  
Enia zukan.

Xorro morro xorrotan, nuestro  
gallo con las gallinas;  
no con las gallinas,  
sí con las gallinas.  
A ese Juan, que es un  
encanto, (se lo lleva) en  
las garras el milano. María  
echa a correr, diciendo:  
ay, ay, ay, era mío.

Infor. : José M<sup>o</sup> Iraburu  
Loc. rec. : Luzaide  
Fecha : 30 de octubre de 1919  
Clas. : artaxuriketak

### 997<sub>g</sub>.- Xoriñua, norat hua

Sara-Sare  
( Lapurdi - L )

Variante

Xo — ri — ñu — a, no — rat  
hu — a bi e — ga — lez ai — zi — an?  
Es — pa — ñi — a — lat ju — ai — te — ko  
e — lu — rra du — zu bi — di — an;  
bi — bi — ño — ak jua — nen gi — tu — tzu  
e — lu — rra hur — tu de — ni — an.

Xoriñua, norat hua  
Bi egalez aizian?  
Españialat juaiteko  
Elurra duzu bidian.  
Bibiñoak juaen gitzutzu  
Elurra hurtu denian.

Pajarito, ¿a dónde vas  
volando?  
Para ir a España  
hay nieve en el camino;  
iremos juntos,  
cuando se derrita.

Infor. : X, en Lehetchipi.  
Loc. rec. : Sara  
Fecha : 15 de enero de 1913  
Clas. : amorosa

Ref. : E.E.S., nº 139.  
ÚH.M., p. 110.  
K.K.K., p. 125.  
C.P.V., nº 79.  
L.P.B., p. 334.  
N.E.K.Z., nº 76.

997<sub>10</sub>- Xoritxua, norat hua

Luzaide-Valcarlos  
( Garazialdea - BN )

Variante

Xo—ri—txu—a, no—rat hu—a, bi e—  
-ga—lez ai—ri—an? Es—pa—ña—ra jo—ai—  
-te—ko e—lu—rra da bor—tu—an. Jua—nen  
gi—ra el—ga—rre—kin, hu—ra ur—tu de—ni—  
-an, jua—nen gi—ra el—ga—  
-rre—kin, hu—ra ur—tu de—ni—an.

1. Xoritxua, norat hua,  
Bi egalez airian?  
Españara joaiteko  
Elurra da bortuan.  
Joanen gira elgarrekin,  
Hura urtu denian. } bis
2. San Joseferen ermita  
Desertuan gora da.  
Españarat joaitean  
Han da nere pausada.  
Gibelera so egin eta  
Asberapenak ardura.

1. ¿A dónde vas, pajarito,  
volando por el aire?  
Para ir a España hay  
nieve en los puertos.  
Iremos juntos  
cuando derrita la nieve.
2. La ermita de san José se  
halla muy arriba en los  
montes. Cuando voy a España,  
hago alto en ella. Vuelvo  
la vista hacia atrás y  
lanzo abundantes suspiros.

Infor. : Facunda Camino, joven del caserío Argiña. La aprendió de su madre.

Loc. rec. : Luzaide

Fecha : 17 de agosto de 1944

Clas. : amorosa

997<sub>11</sub>- Xoritua nurat hua

Sara-Sare  
( Lapurdi - L )

Variante

Xo—ri—tu—a, nu—rat hu—a bi e—  
-ga-lez ai-ri—an? Es-pai-ni—a-lat ju-ai-  
-te-ko e-lu-rra duk mor-tu-ian. Ju-a-nen gai-  
-tuk el—ga-rre—kin, hu—ra hur—tu de—ni-  
- an.

Xoritua, nurat hua  
Bi egalez airian?  
Españalat juaiteko  
Elurra duk mortuian.  
Juanen gaituk elgarrekin,  
Hura hurtu denian.

Pajarito, ¿a dónde vas  
volando por el aire con dos  
alas? Para ir a España  
hay nieve en los montes.  
Iremos juntos,  
cuando se derrita.

Infor. : Jean Dithurbide  
Loc. rec. : Sara  
Fecha : 16 de julio de 1937  
Clas. : amorosa

997<sub>12</sub>- Jakintsunen arabera

Sara-Sare  
(Lapurdi - L)

Variante

Ja — kin—tsu—nen a — ra—be — ra,  
nork be—rak du be—re — a,  
mun — du—ra sor — tu de—ne — an  
e — kha—rra — a zor — te — a;  
Jain — ko — ak e — gin be — za — la,  
nik mai—te dut ne — re — a;  
na — hiz ez den jen — den us — tez  
zo — ri o — nez be — the — a.

Jakintsunen arabera, nork berak du berea,  
Mundura sortu denean ekharria zortea;  
Jainkoak egin bezala, nik maite dut nere,  
Nahiz ez den jenden ustez zorionez bethea.

Según los sabios,  
al nacer trae cada cual su suerte.  
Yo amo la mía cual Dios la hizo,  
bien que a juicio de la gente no sea muy feliz.

Infor. : X, remitida de Sara (Lehetchipi).  
Loc. rec. : Sara  
Fecha : noviembre de 1912

997<sup>13</sup>- Txori banintz, bele banintz

Sara-Sare  
( Lapurdi - L )

Variante

Txo—ri ba—nintz, be—le ba—nintz, gi—ris—  
-ti—no be—za—la, zu—re gan—be—ran sar nin—  
-dai—ke, sa—gu—ño bat be—za—la, ne—re  
pe—nak do—lo—ri—ak zu—ri de—kla—ra—tze—  
-ra.

Txori banintz, bele banintz,  
Giristino bezala,  
Zure ganberan sar nindaie  
Saguño bat bezala,  
Nere penak doloriak  
Zuri deklaratzera.

Si, como soy hombre,  
fuera pajar, fuera cuervo,  
entraría en tu aposento  
como un ratoncito,  
para declararte  
mis penas.

Infor. : Michel Fagoaga, 71 años, cuñado de Fr. Francisco de Echalar, del Colegio de Lecároz.  
Loc. rec. : Sara  
Fecha : 25 de octubre de 1933  
Clas. : amorosa

## 998.- XORIÑUAK KAIOLAN

Etxalar-Echalar  
( Bortziriak - N )

Versión 2ª

Adagio, con libertad

Xo—ri—ñu—ak ka—io——lan  
 trix-te-rik du kan-ta—tzen. Du-e-la-rik  
 han zer yan, zer e—dan, li-  
 -ber-ta-ti-a du de-si-ra-tzen. Ai, le-ren le-  
 -ren, ai, le-ren le—ren, li-ber-ta-  
 -ti-a zoin e—der den!

Xoriñuak kaiolan  
 Trixterik du kantatzen.  
 Duelarik han zer yan, zer edan,  
 Libertatia du desirutzen.  
 Ai, leren leren, ai, leren leren,  
 Libertatia zoin eder den!

Infor. : Boni Irazusta  
 Loc. rec. : Barcelona  
 Fecha : 22 de enero de 1947

Ref. : Canción tomada por el P. Donostia en Barcelona, de Bonifacio Irazusta, de Renteria, quien la aprendió en las "Palomeras" de Echalar, hacía el año 1930.

## 999.- TXORI NOLA KAIOLAN

Donostia-San Sebastián  
( Donostialdea - G )

Versión 3ª

Txo—ri no—la ka—io—lan tris—  
-te du kan—ta—tzen; ez jan ez e—da—  
-la—rik kan—pu-a de—si—ra—tzen: a—rren, a—  
-rren, li—ber—ta—de— a zein e—der den!

Txori nola kaiolan  
Triste du kantatzen;  
Ez jan ez edalarik  
Kanpua desiratzten:  
Arren, arren,  
Libertatea zein eder den!

Infor. : Josu Mirena Iturzaeta, 30 años.  
Loc. rec. : Donostia  
Fecha : 27 de mayo de 1947

Txori ma ka kabin tri le bi kanta

zen e lan e dala nik konpu eeri ra

pena i j a ren li forba de a j j e y e r

den

Donostia 1947. V-21

Don mureña jurgata do. aiji.

fu da rri tice  
 i P. a si ya Per nau don  
 Amur i ubi k e z a a s t e i n e

Zalainca - Jurgata

ENLACE

SAN SEBASTIAN  
 27 DE MAYO DE 1947

## 1000.- TXULUBITE, MALUBITE

Ihabar-Yabar  
( Arakil - N )

Txu-lu-bi-te, ma-lu-bi-te, Prantzia-ren  
sar-tu, Es-pa-ña-ren a-tra. Ne-re txu-lu-  
-bi-te gai-xo-a, o-xo-rik bi-xi-rik a-te-  
más aprisa  
-ra. Tti-ttu bien, tti-ttu bien, u-rik ez-tau i-tu-  
-rien.

Txulubite, malubite,  
Prantziaren sartu,  
Españaren atra.  
Nere txulubite gaixoa,  
Oxorik bixirik atera. (bis)  
Ttittu bien, ttittu bien,  
Urik eztau iturrien. } bis

Chulubite (silbato),  
malubite, entra en Francia  
y sal en España.  
Mi pobre silbato,  
sal entero y con vida.  
Ttittu bien, ttittu bien,  
no hay agua en la fuente.

Infor. : Fr. Simón de Yabar, del Colegio de Lecároz.

Loc. rec. : Lecároz

Fecha : 26 de enero de 1933

Clas. : infantil

Ref. : «Canción para hacer flautillas los niños. Sentado uno, pone la boina en cuatro dobles sobre la rodilla. Tomando la navaja por la hoja, se golpea con el mango sobre la vara de fresno, castaño, chopo... para que salga la corteza.

«Al "tittu bien" se le pega en la punta para sacarle la boquilla. Hay que advertir que, antes de tomar la navaja por la hoja, etc... se debe señalar la abertura de boquilla y de los agujeros que se quieren hacer». P. Donostía

O.C.P.D., t. I, p. 283 y t. II, p. 189.

Véase en este Cancionero la canción "Tinter lanter", de este mismo género (NC).

## 1001.- UDABERRIA, UDABERRIA

Urdiain

( Burunda - N )

U-da-be-rrí-a, u-da-be-rrí-a, ar-bo-  
 -la lo-rez ze—ni—an. Zu-re  
 be—rrí-a ze-ki—en o-rrek e-san  
 nai zi-ra e-gi-a.

Udaberria, udaberria,  
 Arbola lorez zenian.  
 Zure berria zekien orrek  
 Esan nai zira egia.

Primavera, primavera,  
 cuando los árboles se hallaban floridos.  
 Ese que tenía noticias sobre ti  
 quería decirme la verdad.

Loc. rec. : Urdiain

Fecha : v. 1920

Trans. : P. Modesto de Lecumberri

## 1002.- UMORE EDERRIAN

Arraioz-Arráyo  
( Baztan - N )

U — mo-re e-de-rri-an nua—ye kan-ta-tze-  
-ra. Ur — te za—rra gu— an ta be-  
-rri- a sar-tze-ra. Ur— te un—tan o-  
-su— an bi— zi-ko o—te ge—ra? I-  
-ñork ez du fir— ma-tzen: kon— tu— ak a— te—ra.

Umore ederrian nuaye kantatzera.  
Urte zarra guan ta berria sartzera.  
Urte untan osuan biziko ote gera?  
Iñork ez du firmatzen: kontuak atera.

Me pongo a cantar con buen temple.  
Se fue el año viejo y entramos en el nuevo.  
¿Lo viviremos íntegro? Nadie puede asegurarlo.  
Ajustemos, pues, (nuestras) cuentas.

Infor. : Atxualdea  
Loc. rec. : Arraiotz  
Fecha : 21 de agosto de 1912

Ref. : El P. Donostia la publicó en sus "Conferencias de Bilbao", con texto de una poesía de Elizaburu, "Urrundik ikhusten dut" (Agur Herriari). La damos con el texto original (una sola estrofa), compuesto por un casero de Elizaburia de Lecároz, Juan Martín Indart, que murió en 1886. La melodía es, sin duda, anterior y una de las pocas de ritmo en 5/8 de buena ley, modelo en su género.

N.E.K.Z., nº 100.  
O.M.P.D., t. IX, nº 5.

1002<sub>1</sub>.- Gaztigatu dirade

Zugarramurdi  
(Baztan - N)

Variante

Gaz — ti — ga — tu di — ra — de I —  
 - run - dik u - ne — ra ber — tsu be - rri - txo  
 bi - da pa — ra di - tza - da — la : di -  
 - ber - si - u - a — ga - tik sa — ia - tu — ko ge -  
 - ra , a — tzen - du ez - pa - zai - ku da -  
 - ki - gun es - kua - ra .

Gaztigatu dirade Irundik unera  
 Bertsu berritxo bida para ditzadala:  
 Dibersiuagatik saiatuko gera,  
 Atzendu ezpazaiku dakigun eskuara.

Al regreso de Irún me han encargado componer un par de coplas. Haremos un esfuerzo, por vía de entretenimiento, a no ser que se nos haya olvidado el vascuence que sabemos.

Infor. : Fr. Bernardo de Zugarramurdi, del Colegio de Lecároz.  
 Loc. rec. : Lekaroz-Lecároz  
 Fecha : 27 de junio de 1916

### 1003.- UMORE EDERRIAN

Lekaroz-Lecároz  
(Baztan - N)

Versión 2ª

U—mo—re e—de—rri—an nua—ye kan—ta—tze—  
-ra. Ur—te za—rra juan e—ta be—rri—an sar—tze—  
-ra. Ur—te on—tan o—su—an bi—zi—ko<sub>o</sub>—te ga—  
-ra? I—ñork ez tu fir—ma—tzen:kon—tu—ak a—te—  
-ra.

Umorederrian nuaye kantatzera.  
Urte zarra juan eta berrian sartzera.  
Urte ontan osuan biziko ote gara?  
Iñork ez tu firmatzen: Kontuak atera.

Voy a cantar de buen humor. El Año Viejo se nos fue; Hemos entrado en el Nuevo. ¿Estamos seguros de vivirlo hasta el fin? Nadie puede prometérselo: hagamos, pues, las cuentas.

Loc. rec. : Lekarotz  
Fecha : 15 de febrero de 1912

Ref. : Compuso estos versos Juan Manuel Indart, de Lecároz, a los 54 años.

## 1004.- UMORE ONA DAUKAT



U—mo—re o—na dau—kat ta a—gin—tzen dit a—  
 -di—ñek: mun—du—an ez ge—ra—de gu—  
 -zi—ok ber—di—ñek.

Umore ona daukat ta  
 Agintzen dit adiñek:  
 Munduan ez gerade  
 Guziok berdiñek.

Me siento de buen humor,  
 y la edad me lo exige.  
 No somos todos iguales  
 en el mundo.

Fecha : 1919

Trans. : P. Modesto de Lecumberri

## 1005.- UMOREAN NAGO TA

Elizondo  
 ( Baztan - N )



U—mo—re—an na—go ta nai nu—ke kan—ta—  
 -tu, don—ze—lla e—der o—rri zer

za-ion ger-ta-tu. Dan-tza-tik a-te-  
 -ra ta au-rra e-gin bai-tu, dan-  
 -tza-tik a-te-ra ta au-rra e-gin bai-  
 -tu.

- |                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                        |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. Umorean nago ta nai nuke kantatu,<br/>         Donzella eder orri zer zaion gertatu.<br/>         Dantzatik atera ta aurra egin baitu,<br/>         Dantzatik atera ta aurra egin baitu.</p>      | <p>1. Estoy de humor y quisiera<br/>         contar lo que le ocurrió a esa doncella.<br/>         Al salir del baile<br/>         ha dado a luz una criatura.</p>                     |
| <p>2. Elizondoko Zatonian boda zirenean,<br/>         Dama bat dantzatu zen dantzaren lenian.<br/>         Erlia geldí zegon bere kojoñian,<br/>         Airian gan zitzaion libratu zenian.</p>        | <p>2. En Zatonía de Elizondo,<br/>         estando de boda, una joven<br/>         bailó el primer baile.<br/>         Se le posó una abeja que voló cuando se libró.</p>              |
| <p>3. Matti Maixterreneko gizontto noblia,<br/>         Elizondon ura ute erregidoria.<br/>         Gau batez gan zitzaion atera pobria<br/>         Kapapian zuela presenta gordia.</p>                | <p>3. Matti de Maixterrena, hombre noble,<br/>         es regidor en Elizondo.<br/>         Una noche fue a su puerta el pobre<br/>         con el presente debajo de la capa.</p>     |
| <p>4. Atia koxkox yo'ta presenta an utzi,<br/>         Deusere erran gabe goan da igasi.<br/>         Ez ote den bidian iñork ere kusi,<br/>         Galde'gin biar zayo senor Kasakusi.</p>            | <p>4. Pegó en la puerta y dejando<br/>         el presente se escapó sin decir nada.<br/>         ¿No le habrá visto nadie?<br/>         Habrá que preguntárselo al señor Kasakus.</p> |
| <p>5. Kapa sonbrilluarekin illian kordona,<br/>         Txokotxo arrabide da olango gizona.<br/>         Berdin barriatu da nork taukan obrena,<br/>         Berdin barriatu da nork taukan obrena.</p> | <p>5. Capa con gorro y cordón<br/>         en el pelo .....</p>                                                                                                                        |
| <p>6. Lekaroz ortan bada donzella garbirik,<br/>         Aur baten egiteko ez biar barberik.<br/>         Iñun al balin baute abarka satarrik,<br/>         Emani aski dute Kasakus bakarrik.</p>       | <p>6. En Lekaroz hay una doncella<br/>         que no necesita médico<br/>         para dar a luz<br/>         .....</p>                                                               |

7. Lekaroz'ko erria, bordel iduria,  
Aurrez beteko dute oi ospitalia.  
Ezpazayo guardatzen oi kastidadia,  
Ezpazayo guardatzen oi kastidadia.

7. El pueblo de Lekaroz  
parece una inclusa.  
Van a llenar el hospital de niños,  
si no se guarda castidad.

Loc. rec. : Elizondo

Fecha : 1934-1936

Clas. : narrativa

Ref. : «Pasó esto hace tres generaciones. Es de 1751 (?)». P. Donostia

## 1006.- UNA PLANETA

Etxarri-Echarri

( Larraun - N )

*Andantino*

U-na pla-ne-ta, sal-sa mi-son ka-nu-ti-  
-son, ka-nu-ti-son. Xun-be, xun-be de la  
tron-pe-ta. La rris-ki-tin, rris-ki-tin  
ki-ta-rra. La zi-rrin-ki-tin, zi-rrin-ki-tin  
bio-li-ñe. La ttun-ku-ttun, ttun-ku-ttun  
danbo-li-ñe. La fli-fli-tin, fli-fli-tin  
fla-io-ia. Bo lon e der.

Una planeta, salsa mison  
 Kanutison, kanutison.  
 Xunbe, xunbe de la "tronpeta".  
 La rriskitin, rriskitin "Kitarra".  
 La zirrinkitin, zirrinkitin "bioliñe".  
 La ttunkuttun, ttunkuttun "danboliñe".  
 La fliflitin, fliflitin "flaiola".  
 Bolon eder!

Loc. rec. : Etxarri  
 Fecha : 1920  
 Clas. : de cuna  
 Trans. : P. Modesto de Lecumberri

Ref. : Por su letra va desfilando una orquesta, quizá de juguetes: lenguaje misterioso, incomprensible para nosotros; pero en él se entienden a maravilla madre e hijo.

Posteriormente (1934), D. Manuel de Viscarret, natural de Esparza de Salazar y farmacéutico de Lecumberri, muy dado al folklore vasco, envió otra transcripción, idéntica en cuanto a su música y texto, recogida en Lecumberri.

Ofrece sorprendente semejanza con esta canción (melodía y letra), aquella otra castellana, intitulada "¡Oh, qué buen amor saber yoglar...!", que leemos en "F. Olmeda, Folklore de Castilla o Cancionero Popular de Burgos", Sevilla, 1903, p. 78., y en "Fernando J. Obradors, Canciones clásicas", vol. III, Madrid, 1941, p. 3-6.

G.H., 1937, 4.  
 N.E.K.Z., nº 60.  
 O.M.P.D., t. VIII, nº 35.

## 1007.- UNTZI BAT GALDU ZAUKU

Sara-Sare  
 ( Lapurdi - L )

Un — tzi bat gal — du zau —

— ku i — tsa — so han — di — an; be — rre — hun

bat pa-sa yer ba-zi-ren bar-ni-  
 -an. Hei-en go-ra ma-rras-  
 -kak han zi-ren or-du-ian, Jau-na-ri  
 ko-men-da-tuz az-ken o-re-ni-  
 -an.

1. Untzi bat galdu zauku itsaso handian;  
 Berrehun bat pasayer baziren barnian.  
 Heien gora marraskak han ziren orduian,  
 Jaunari komendatuz azken orenian.
2. Untziko kapitaina oihuka ari zen,  
 Jende hoikien salbatzeko batxerak non ziren.  
 Hiruetarik bia galduak baitziren,  
 Jende hoikien salbatzeko bat baizik han etzen.

1. Se nos ha perdido un barco en alta mar, con  
 unos doscientos pasajeros. Entre fuertes  
 alaridos se encomendaban a Dios en el último  
 instante.
2. El capitán del barco preguntaba a gritos dónde  
 estaban los botes salvavidas. De tres que había,  
 dos se habían perdido; por tanto sólo quedaba  
 uno para salvar a esa gente.

Infor. : Marie Aguerre, en Lehetchipi.

Loc. rec. : Sara

Fecha : 30 de octubre de 1912

Clas. : narrativa

Ref. : E.E.S., nº 293.

## 1008.- ONTZI BAT GALDU ZAUKU

Sara-Sare  
( Lapurdi - L )

Versión 2ª

On-tzi bat gal-du zau-ku i-tsa-so  
han-di-an, be-rre-hun pa-sa-ger  
ju-an tzen bar-ni-an. He-ien go-ra ma-rras-  
-kak han zi-ren or-du-ian, Jau-na-ri  
ko-men-da-tuz az-ken o-re-ni-an.

1. Ontzi bat galdu zauku  
Itsaso handian,  
Berrehun pasajer  
Juan tzen barnian.  
Heien gora marraskak  
Han ziren orduian,  
Jaunari komendatuz  
Azken orenian.

2. Untziko kapitaina  
Oihuka ari zen,  
Jende hoién salbatzeko  
Baxetak non ziren.  
Hiruetarik bia  
Galduak baitziren,  
Jende hoién salbatzeko  
Bat baizik han etzen.

Infor. : la sirvienta de Lehetchipi  
Loc. rec. : Sara  
Fecha : 15 de enero de 1913  
Clas. : narrativa

Ref. : E.E.S., nº 308.

## 1009.- UR GOYENA, UR BARRENA

Oderitz-Oderiz

( Larraun - N )

Ur go—ye-na, ur ba—rre-na, ur-te be—  
 -rri e-gun o—na. E-gun o-na-ren se-ña-le-  
 -a, e—men da-kar-gu ur be—rri—a.

1. Ur goyena, ur barrena,  
 Urte berri egun ona.  
 Egun onaren señailea,  
 Emen dakargu ur berria.

2. Etxeko andre zabala,  
 Leku oneko alaba,  
 Bidian gatoz informaturik  
 Limosnerua zerala.

1. Agua somera, agua profunda,  
 buen día de Año Nuevo.  
 En señal de buen día  
 aquí traemos el agua nueva.

2. Generosa señora ama,  
 hija de buen lugar:  
 nos han informado en el  
 camino que sois limosnera.

Loc. rec. : Oderiz

Fecha : setiembre de 1914

Clas. : navidad

Ref. : Canción de ronda o cuestación, propia del Año Nuevo. Se recogió en Oderiz. Los mozos recorren el barrio la noche de fin de año, repartiendo el agua nueva, con vistas a celebrar con una buena cena la llegada del Año Nuevo.

E.E.S., nº 247.

C.P.V., nº 988.

F.L.V., 1971, p. 35-37. Acerca de nuestro tema, interesante y minucioso artículo de J.M. Satrustegui, "Canto ritual del agua en el Año Nuevo".

O.C.P.D., t. I, p. 48.

1009<sub>1</sub>.- Ur goyena, ur barrena

Arruazu  
( Aranatz - N )

Variante

Ur go — ye — na, ur ba — rre — na, ur —  
 - te — be — rri e — gun o — na, Jain — ko — ak di — zue — la e —  
 - gun o — na. E — txe o — ne — tan sar — tu de — di — lla pa —  
 - ki — a — re — kin o — sa — su — na, u — ra — re — kin on —  
 - da — su — na.

Ur goyena, ur barrena,  
 Urteberri egun ona.  
 Jainkoak dizuela egun ona.  
 Etxe onetan sartu dedilla  
 Pakiarekin osasuna,  
 Urarekin ondasuna.

Agua somera, agua honda,  
 feliz día de año nuevo.  
 Dios os dé un buen día.  
 Entre en esta casa,  
 con la paz, la salud;  
 con el agua, la hacienda.

Loc. rec. : Arruazu  
 Fecha : 1918  
 Clas. : navidad  
 Trans. : P. Modesto de Lecumberri

**1009<sub>2</sub>- Ur barrena, ur goyena**

Altsasu-Alsasua  
( Burunda - N )

Variante

Ur ba — rre-na, ur go — ye — na; ur-  
-te be-rri e — gun o — na.

Ur barrena, ur goyena;  
Urte berri egun ona.

Loc. rec. : Alsasua  
Fecha : 1918  
Clas. : navidad  
Trans. : P. Modesto de Lecumberri

**1010.- UR GOYENA, UR BARRENA**

Ziordia-Ciordia  
( Burunda - N )

Versión 2<sup>a</sup>

Ur go — ye — na, ur ba-rre-na, ur-te be-rri-a,  
e — gun o — na. O — nan de-kar-gu ur be-rri-a.  
I — de — ki — za — zu a — ta — ri — a.

Ur goyena, ur barrena,  
Urte berria, egun ona.  
Onan dekargu ur berria.  
Idekizazu ataria.

Agua somera, agua profunda,  
buen día de Año Nuevo.  
Aquí traemos el agua nueva,  
abre la puerta.

Loc. rec. : Ciordia  
Fecha : v. 1920  
Clas. : navidad  
Trans. : P. Modesto de Lecumberri

### 1011.- URAK EZTU GIZONIK ALEGERATZEN

Arantza-Aranaz  
( Bortziriak - N )

U — rak ez — tu gi — zo — nik a — le —  
- ge — ra — tzen; bai na — par ar — no  
o — nak gi — zo — na, gi — zo — na kan — ta — ri  
e — der pa — ra — tzen.

Urak eztu gizonik alegeratzen;  
Bai napar arno onak  
Gizona, gizona  
Kantari eder paratzen.

No hay hombre a quien le  
ponga alegre el agua; el buen  
vino navarro, en cambio, hace  
del hombre un buen cantor.

Infor. : Boloños, albañil natural de Aranaz, avencinado en Lecároz.  
Loc. rec. : Lecároz  
Fecha : 25 de febrero de 1912  
Clas. : báquica

Ref. : Se atribuye a Xantxo.

E.E.S., nº 55.

**1012.- URIYA, URIYA**

Lesaka-Lesaca  
( Bortziriak - N )

U — ri — ya, u — ri — ya, a — tton bi — zar zu —  
ri — ya. O — ya — na — ra juan ta ain —  
ge — ru bu — ru xu — ri — ya.

Uriya, uriya,  
Atton bizar zuriya.  
Oyanara juan ta  
Aingeru buru xuriya.

Lluvia y lluvia,  
abuelo de barba blanca.  
Ir al bosque, y  
ángel de cabeza blanca.

Loc. rec. : Lesaka  
Fecha : 9 de Agosto de 1950  
Trans. : Pascual Rodríguez Aldave

Ref. : Se canta cuando empieza a llover.

### 1013.- URKIZELAIKO PUNTAN

Sara-Sare  
( Lapurdi - L )

Ur-ki-ze-lai-ko pun-tan Ba-tis-ta han-di-  
-a, a-metz bat es-ku-e-tan pi-  
-ka-tu be-rr-i-a. Ai-tor-tzen ez-ba-  
-ni-on han ber-tan e-gi-a, hau-  
-tsi-ko ze-ra-da-len bu-rua-ren er-di-  
-a; nik e-ba-tsi ni-o-la ber-  
-ta-ko ar-di-a.

Urkizelaiko puntan Batista handia,  
Ametz bat eskuetan pikatu berria.  
Aitortzen ez banion han bertan egia,  
Hautsiko zeradalen buruaren erdia; (zerautala)  
Nik ebatsi niola bertako ardia.

El gran Bautista (estaba) en la cima de Urkizelai con  
un bastón de quejigo recién cortado. (Me amenazó)  
que me partía la cabeza, si no le confesaba la  
verdad allí mismo; (le confesé) que yo le había  
robado la oveja.

Infor. : el chantre de Sara, en Lehetchipi.  
Loc. rec. : Sara  
Fecha : 15 de enero de 1913  
Clas. : narrativa

Ref. : E.E.S., nº 305.

## 1014.- URRRA KATXUTXA

Lekeitio

( Lea-Artibai - B )

U-rra ka-txu-txa txa-pe-la fren-te  
 po-pa ga-ni-an i-ru ko-me-dian-te;  
 a-ren ga-ni-an be-la zu-ri-je;  
 a-ren as-pi-an a-rrau-tza go-rrin-go.

Urra katxutxa,  
 Txapela frente  
 Popa ganian  
 Iru komediantes;  
 Aren ganian  
 Bela zurije;  
 Aren aspian  
 Arrautza gorringo.

Urra katxutxa,  
 txapela frente  
 en popa hay  
 tres comediantes;  
 encima de ella,  
 una vela blanca;  
 debajo de ella,  
 yema de huevo.

Loc. rec. : Lekeitio

Fecha : noviembre de 1942

Trans. : Amantzi Urriolabeitia, natural de Lekeitio, residente en Biarritz.

Ref. : «Versión de "Pello Joxepe"». P. Donostia

## 1015.- URRRA, MANUELATXO

Oñati

( Deba Garaia - G )

U-rra, Ma-nu - e - la -txo, zer do-zu ne-ga-  
-rrez? Ai-tak e - tã - mak be-te-rik e-ma-  
-iez. Lo, lo, lo, lo, lo, lo, lo, lo, lo.

Urra, Manuelatxo,  
Zer dozu negarrez?  
Aitak eta amak  
Beterik emaez.  
Lo, lo, lo.....

¿Por qué lloras,  
Manuelita? Tu padre y  
tu madre tienen para ti  
regalos a manos llenas.  
Lo, lo, lo.....

Loc. rec. : Oñate

Fecha : 1919

Clas. : de cuna

Trans. : P. Modesto de Lecumberri

Ref. : Caso curioso el de esta canción, que nos presenta a Manuelita en dos coyunturas muy dispares, como verá el lector por las siguientes estrofas, oídas y copiadas en Mondragón el día 23 de Julio de 1980, de labios de Doña Victoriana Villar, natural de Oñate, por las señoritas Blanca y Consuelo Zaragüeta, de San Sebastián.

1. Urra, Manuelatxo,  
Zer dozu negarrez?  
- Ez aitak eta amak  
Doterik eman, ez.

2. Amak emango balost  
Amar amaseiko,  
Ezkonduko nintzake  
Udaberrirako.

3. Udaberria joan da,  
Negua etorri;  
Ta ni ezkondutzeko  
Burubide gutxi.

1. Hola Manuelita,  
¿por qué lloras?  
- Ni mi padre ni mi madre  
me dan la dote.

2. Si la madre me diera  
diez onzas de oro,  
me casaría  
para la primavera.

3. Se fue la primavera,  
ha llegado el invierno;  
pero de casamiento,  
pocas perspectivas.

Demás está decir que, con estas estrofas, sobran los compases destinados al lo, lo, lo.

## 1016.- URRUNDIK IKUSTEN DUT

Sara-Sare

( Lapurdi - L )

U-rrun-dik i-kus-ten dut, i-kus-ten men-di-  
 - a, zei-na-ren gi-be-le an  
 bai-tut nik he-rr-i-a. Ja-da-nik dut a-  
 - di-tzen, zo-ri-on han-di-a!  
 ez-ki-la mai-te-a ren has-pe-ren ez-ti-  
 - a.

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia,  
 Zeinarean gibelean baitut nik herria.  
 Jadanik dut aditzen, zorion handia!  
 Ezkila maitiaren hasperen eztiá.

De lejos diviso la montaña  
 tras la que está el pueblo (natal).  
 Oigo ya, ¡qué alegría tan grande!  
 el dulce suspiro de la campana amiga.

Infor. : X, remitida de Sara (Lehetchipi).

Loc. rec. : Sara

Fecha : noviembre de 1912

Ref. : E.E.S., nº 300.

G.H., 1923, 5.

O.M.P.D., t. VII, nº 8.

K.K.K., p. 29.

Kantuz, nº 12.

M.E.O.E., p. 531.

R.I.E.V., 1912, p. 538.

F.C.P.V., nº 3.

# 1017.- URRUNDIK IKUSTEN DUT

Arraioz-Arráyo  
( Baztan - N )

Versión 2ª

Andantino

U — rrun — dik i — kus — ten dut i —  
 - kus — ten men — di — a, zei — na — ren gi — be —  
 - le — an bai — tut nik he — rri — a. Ia —  
 - da — nik dut a — di — tzen, zo — ri — on han — di —  
 - a! ez — ki — la mai — te — a — ren as —  
 - pe — ren ez — ti — a.

Urrundik ikusten dut ikusten mendia,  
 Zeinaren gibelean baitut nik herria.  
 Iadanik dut aditzen, zorion handia!  
 Ezkila maitearen asperen eztia.

Loc. rec. : Arraiotz

## 1018.- URTARRILAREN HOI TA ZAZPIAN

Kauserak

Hazparne-Hasparren

( Lapurdi - L )

Ur-ta-rr-i-la-ren hoi ta zaz-pi-an, Ai-he-rra  
E-txe-ga-ra-ian, kau-se-rak  
e-re e-gin o-men tuz-te be-re us-tez  
se-ge-re-tu-ian. Be-re-us-tez  
se-ge-re-tu-ian e-ta hi-ru a-  
-hiz-pen ar-ti-an.

1. Urtarrilaren hoi ta zazpian, Aiherra Etxegarai, Kauserak ere egin omen tuzte bere ustez segetuian; Bere ustez segetuian eta hiru ahizpen artian.
2. Aita zuten merkatuian nausi gaztearekilan; Ama zaharra Lekhuinen, Xastretegian. Ahizparik gazteena ari latsen iturrian.
3. Haurra-Marik Mariari:-A, zer kausera-jailea, hi! Unga bat ogi, zaragi bat olio, hiretako partia jateko. Lagun hoberik eniken nahi mundu huntarik hi baino.
4. - Haurra-Marik; salbetik arno zaharra ekarri. Ene ahizpak, edan dezagun bira kolpotxo huntarik, Kauserak kalte egin ez dezaten edan gabetarik janik.
1. El día 27 de Enero, en Etxegarai de Aiherre, han preparado buñuelos entre tres hermanas, en secreto, según ellas.
2. El padre, con el amo joven, al mercado; la abuelita, a Lekhuine, a casa del sastre; la hermana menor, a lavar la ropa en el arroyo.
3. Haurra Mari le dice a María:-¡Cómo te gustan los buñuelos! Un robo de trigo, con un pellejo de aceite, no te bastan para saciar el hambre. No deseo compañera mejor que tú en este mundo.
4. - Haurra Mari: trae de la bodega vino añejo, hermana, echemos un par de copas, para que no nos hagan daño los buñuelos.

5. Itsasotik lanopetik jaigiten da euria;  
Aiziarekin erauntsiak joiten du mundu guzia.  
Zure eta ene segeteuia hala da barreatuia.

Infor. : Graxiene Vergés, 87 años.  
Loc. rec. : Hazparne  
Fecha : 1 de febrero de 1927  
Clas. : festiva-satírica

5. Del mar, por bajo las nubes, nos viene la lluvia,  
que el viento esparce por todas partes. Así se ha  
esparcido nuestro secreto.

Ref. : G.H., 1929, 2.

## 1019.- URTIAK IL BI DITU ALEGRERIK

Bakaiku-Bacaicoa  
( Burunda - N )

Ur—ti—ak il bi di—tu a—le—gre—  
-rik: Ma—ya—tza, A—pi—ri—la, lo—  
-raz be—te—rik.

1. Urtiak il bi ditu  
Alegrerik:  
Mayatza, Apirila,  
Loraz beterik.

2. Asentziuak eta  
Korpuz Kristiak,  
Eldu dirade Paskuak  
Mayatzekuak.

1. Dos meses alegres  
tiene el año:  
Mayo y Abril  
floridos.

2. Vienen las  
Pascuas de Mayo,  
Ascensión y  
Corpus Cristi.

Loc. rec. : Bakaikoa  
Fecha : v. 1920  
Trans. : P. Modesto de Lecumberri

Ref. : C.P.V., nº 898, p. 1045 (Variante).

## 1020.- URTIAK ZENBAT EGUN TU?

Lekaroz-Lecároz  
( Baztan - N )

Ur— ti— ak zen— bat e— gun tu? E— me—  
- zor— tzi o— gei tu. Gor— ta— ri— ga— rai gaz— ti  
o — rrek ain— ber— tze ber— tso e— man tu.

- Urtiak zenbat egun tu?  
- Emezortzi ogei tu.  
Gortagarai gazti orrek  
Ainbertze bertso eman tu.

- ¿Cuántos días tiene el año?  
- Trescientos sesenta.  
Otras tantas coplas  
hace ese joven Gortagaray.

Loc. rec. : Lekarotz  
Fecha : 9 de noviembre de 1913

Ref. : E.E.S., nº 330.

## 1021.- URXUAK GALDU BEGIA

Iholdi-Iholdy

( Armendaritze-Iholdi-Irisarrialdea - BN )

Ur-xu-ak gal-du be-gi-a; be-gi-a  
gal-du ur-xu-ak. Ur-xu-ak  
be-gi-a. No-la kan-ta, no-la  
xi-ru-la? Ur-xu-ak be-gi-a  
-a.

Urxuak galdu "begia";  
"Begia" galdu urxuak.  
Urxuak "begia".  
Nola kanta, nola xirula?  
Urxuak "begia".

La paloma ha perdido el "ojo";  
ha perdido el "ojo" la paloma.  
La paloma el "ojo"  
¿Cómo cantar, como tañer?  
La paloma el "ojo".

Y se repite la canción, enumerando sucesivamente los distintos miembros del pájaro:

- |                  |        |                  |       |
|------------------|--------|------------------|-------|
| 1. Begia .....   | Ojo    | 6. Hegala .....  | Ala   |
| 2. Mokoa .....   | Pico   | 7. Ixterra ..... | Muslo |
| 3. Burua .....   | Cabeza | 8. Zangarra ...  | Zanka |
| 4. Lephua .....  | Cuello | 9. Zangoa .....  | Pie   |
| 5. Bizkarra .... | Dorso  | 10. Buztana .... | Cola  |

Infor. : Iratxet, de Bidarraí, seminarista.

Loc. rec. : Bayona

Fecha : 7 de marzo de 1941

Clas. : infantil

Ref. : «Copiado de Iratxet, quien la había aprendido de su madre, que era de Iholdi». P. Donostia

## 1022.- ÜRZO XURI BAT

Mithikile-Moncayolle  
( Pettara - Z )

Ür - zo xu - ri bat jin i - zan zai - kü  
 A - rhan - tzü - se — ko bor - tün ga — ñan.  
 E - rran ge - nei — on khor - te — res - ki  
 gaur ba - ra la - din gu - re - ki.

- |                                                                                                                                 |                                                                                                                                     |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. Ürzo xuri bat jin izan zaikü<br/>Arhantzüseko bortün gañan.<br/>Erran geneion khortereski<br/>Gaur bara ladin gureki.</p> | <p>1. Una blanca paloma nos vino<br/>por la cima de Arhantzus.<br/>Le dijimos cortésmente que<br/>pasara la noche con nosotros.</p> |
| <p>2. - Ürzo xuria, ürzo xuria,<br/>Erran izadant, othoi, egia:<br/>Nuat hunduen bidajez,<br/>Sanjatü gabe pasajez?</p>         | <p>2. - Blanca paloma, blanca paloma,<br/>dime, por favor la verdad:<br/>¿A dónde ibas de viaje,<br/>sin cambiar de ruta?</p>       |
| <p>3. - Ene herritik partitü nintzan<br/>Españaleko deseñian:<br/>Heltü niz Arhantzüsera<br/>Ene plazeren galtzera.</p>         | <p>3. - Partí del pueblo con<br/>idea de ir a España;<br/>llegué a Arhantzus<br/>para mi desgracia.</p>                             |
| <p>4. Artzain gaztia bortü gorenetan<br/>Oihüz ari da doloretan:<br/>Antxü bat diala erosi,<br/>Bera dereiola ebatsi.</p>       | <p>4. El pastor joven se lamenta<br/>dolorido en la montaña.<br/>Había comprado una ovejita,<br/>y se la han robado.</p>            |
| <p>5. - Ene antxü, antxü karioa,<br/>Bihotzez ungi maitatia:<br/>Nik etzütüt, ez, Kitatüren;<br/>Lehen ditü bizia galdüren.</p> | <p>5. - Ovejita mía, ovejita querida,<br/>amada de mi corazón:<br/>no te abandonaré, no;<br/>antes perder mi vida.</p>              |

Infor. : Martín Sallaberry, 47 años.  
 Loc. rec. : Mithikile  
 Fecha : 7 de setiembre de 1923  
 Clas. : amorosa

Ref. : Copiada en Mithikile de un cuaderno de Martín Sallaberry.

Arhantzus es una choza de pastores, situada entre Lakarry y Eskeleak (Pic des Escaliers).

G.H., 1928, 6.

T.P.B., p. 237. El verso 4º de la 2ª estrofa: "Sanjatü gabe pasajez", Ch. Bordes en esta obra trae: "Aldatü gabe pasajez"; y traduce: "sans chancher de route". Es evidente que "sanjatü" viene de "chancher".

## 1023.- URZO XURI POLLIT BAT

Baigorri-Saint Etienne de Baigorri  
 ( Baigorrialdea - BN )

Ur— zo xu—ri po—llit bat ba—zen he—rri hun—  
 -tan; ai—ta— a—mak u—tzi— rik yo—  
 -an zen ai—re—tan. Pa—re—ga—bi— a  
 bai— tzen be—re la—gu—ne—tan: i—  
 -hiz—ta—ri—ak zu— en a—tze—man sa—re—  
 -tan.

- |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. Urzo xuri pollit bat bazen herri huntan;<br/>Aita-amak utzirik yoan zen airetan.<br/>Paregabia baitzen bere lagunetan;<br/>Ihiztariak zuen atzeman saretan.</p> <p>2. Urzo xuri pollita kaiolan eritu,<br/>Eta ihiztaria tristezia sartu.<br/>Gaitza berri zueno, nahi zuen saldu,<br/>Erostun tontuen bat arrapatu balu.</p> <p>3. Aita-ama gaixuek ez bide zakiten<br/>Ihiztari zaharrak zer zuen egiten:<br/>Urzuak zituela kaiolara biltzen<br/>Eta han inozentez ongi baliatzen.</p> <p>4. - Ihiztari zaharra, gaizki usatua,<br/>Etzautzu baliatu aurtengo tratua.<br/>Gogoz saltzen zinuen urzo kolpatua,<br/>Izan balitz mundua arras lokartua.</p> <p>5. Bertsuak eman tugu gauaren erdian<br/>Hamar mutiko gaztek umore onian.<br/>Eztugu ez emanen bakerik herrian<br/>Urzoa sorlekura ekarri artian.</p> | <p>1. Una linda paloma blanca había en este pueblo;<br/>dejando a sus padres, se fue por los aires.<br/>No tenía igual entre las compañeras.<br/>El cazador la prendió en sus redes.</p> <p>2. La linda paloma blanca enfermó en la jaula,<br/>y el cazador se puso triste.<br/>Mientras el mal era reciente, quiso venderla,<br/>si hubiera hallado comprador tonto.</p> <p>3. Los padres no sabían, sin duda,<br/>qué hacía el viejo cazador:<br/>que reunía palomas en la jaula,<br/>y allí se aprovechaba bien de las inocentes.</p> <p>4. - Viejo cazador, mal acostumbrado, no te ha<br/>valido el trato de hogaño. A gusto hubieras<br/>vendido la paloma herida, si la gente estuviera<br/>del todo dormida.</p> <p>5. Hemos compuesto estos versos a media noche<br/>diez jóvenes muchachos de buen humor. No<br/>descansaremos en el pueblo hasta traer la<br/>paloma al lugar de su nacimiento.</p> |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Loc. rec. : Luzaide  
Fecha : 14 de agosto de 1944

Ref. : Anotó el P. Donostia esta canción en Luzaide, advirtiendo que procedía de Baigorri.  
Cuanto al texto, se lo remitió Juan Sánchez Zaldain, de Urdax.

L.K., p. 50.  
N.E.K.Z., nº 65.

1024.- USO PALOMA XURI

Sara-Sare  
( Lapurdi - L )

U-so pa-lo-ma xu—ri, oi be-gi na-ba-  
-rra, ze-ro-rrek e-man du—zu so-  
-be-ra en-tra-da. E-gon i-zan ba—zi—ne  
ka—io-lan ba-ka—rrik, e-tzi-nu-ien i-  
-za—nen ho—la—ko xan-gri—nik,  
e-tzi-nu-ien i—za—nen ho—la—ko xan-gri-  
-nik.

Uso paloma xuri, oi begi nabarra,  
Zerorrek eman duzu sobera entrada.  
Egon izan bazine kaiolan bakarrik,  
Etzinuien izanen holako xangrinik,  
Etzinuien izanen holako xangrinik.

Blanca paloma, de ojos grises,  
has sido facil en dar entrada.  
Si hubieras permanecido  
solita en la jaula,  
no tendrías tales pesares.

Infor. : la sirvienta de Lehetchipi, en Sara (Lehetchipi).  
Loc. rec. : Sara  
Fecha : 15 de enero de 1913

## 1025.- USO XURIA

Auritz-Burguete  
( Erroibar - N )

U — so zu — ri — a, e — rra — zu,

no — rat yo — ai — ten zi — ren zu.

Es — pai — ni — a — ko por — tu — ak o — ro

e — lhu — rrez be — the — ak di — tu — zu.

Zu — re gaur — ko os — ta — tu gu — re e —

- txe — an ba — du — zu, gu — re e — txe — an

ba — du — zu.

Uso xuria, errazu  
Nura yuaiten ziren zu.  
Españiako bortuak oro  
Elurrez betiak dituzu.  
Gaurko zure ostatu  
Gure yetxian baduzu. (bis)

Blanca paloma, dime  
a donde te diriges.  
Todos los puertos de España  
están cubiertos de nieve.  
En nuestra casa tienes  
posada para hoy.

Infor. : Tomás Larrañeta e hijos.  
Loc. rec. : Burguete  
Fecha : 19 de agosto de 1944  
Clas. : amorosa

Ref. : G.H., 1939, 2.  
K.K.K., p. 120.  
Kantuz, nº 76.

## 1025<sub>1</sub>.- Askotxo eran banuan

Etxarri-Aranatz - Echarri-Aranaz  
(Aranatz - N)

Variante

As-ko-txo e-ran ba-nu-an, on-do-ren pa-ga-  
-tu nu-an, des-ka-la bra-tu mun-du-an.  
Ne-re on-do-tik pa-ra zan ba-tek  
gal-de-ti zi-an zer nu-an a-ber-mi-nen bat  
au ni-an nun-di-kan sen-ti zen-du-an  
plan-tai-o-nen bat ja nu-an.

Askotxo eran banuan,  
Ondoren pagatu nuan,  
Deskalabratu munduan.  
Nere ondotik para zan batek  
Galdeti zian zer nuan  
Abermiñen bat au nian  
Nundikan senti zenduan  
Plantainoen bat ja nuan.

Es verdad que bebí más de la  
cuenta, pero bien lo pagué:  
quedé descalabrado. Uno que  
pasaba a mi lado me preguntó  
qué tenía, si sufría alguna  
dolencia, dónde sentía el  
malestar, si había comido  
algo de llantén.

Loc. rec. : Etxarri-Aranaz  
Fecha : v. 1920  
Clas. : báquica  
Trans. : P. Modesto de Lecumberri

1025<sub>2</sub>- Izar batek zerutik

Uso zuria  
Uztaritze-Ustaritz  
(Lapurdi - L)

Variante

Despacio

I — zar ba — tek ze — ru — tik, kla — ri —  
ta — tez be — te — rik, gau — az e — re  
ar — gi — tzen du ber — tze o — ro — ren gai — ne —  
tik. Du — da — tzen dut du — e — nez mun — du  
hun — tan pa — re — rik, mun — du hun — tan  
pa — re — rik.

1. Izar batek zerutik,  
Klaritatez beterik,  
Gauaz ere argitzen du  
Berte ororen gainetik.  
Dudatzen dut duenez  
Mundu huntan parerik. (bis)

2. Izar haren begia,  
Ain da xarmegarria:  
Koloriak xuri-gorri,  
Perfekzionez betia.  
Eria ere senda liro  
Aren begitartia. (bis)

1. Una estrella, llena de  
claridad, brilla desde el  
cielo también de noche  
más que todas las demás.  
Dudo que tenga otra igual  
en este mundo.

2. El semblante de esa  
estrella es tan encantador:  
su color es sonrosado,  
hecho a perfección.  
Su rostro podría  
curar al enfermo.

3. Uxo zuria, errazu,  
Norat yuaiten ziren zu.  
Españiako bortuak oro  
Elurrez betiak dituzu:  
Gaurko zure ostatu  
Gure etxian baduzu. (bis)

3. Blanca paloma, di  
a dónde te diriges.  
Todos los puertos de  
España están cubiertos de  
nieve: hoy puedes  
hospedarte en nuestra casa.

4. Ez nau izitzen elurrak  
Ez eta ere gau ilunak.  
Maitiagatik pasa nintzazke  
Gauak eta egunak,  
Gauak eta egunak  
Desertu eta oihanak. (bis)

4. No me asusta la nieve ni  
tampoco la oscuridad de  
la noche. Por la que yo amo  
aguantaría noches y días;  
noches y días,  
desiertos y bosques.

Infor. : Philippe Laffitte, 76 años, aprendida de su madre, y ésta, de la suya.  
Loc. rec. : Ustaritz  
Fecha : 13 de setiembre de 1949  
Clas. : amorosa

Ref. : B.B., p. 67.

### 1025<sub>3</sub>.- Usu txuria

